



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urtarilaren 17ko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarrilaren hamazazpian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena
Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarrilaren 17a

Afitzatze eguna : 2023ko urtarrilaren 17a

1. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA AUTOKIDETZA GUNE BATEN BERRANTOLATZEKO 7.10 nomenklatura

Auzapezak Herri Biltzarkideei 918 departamenduko errepidean autokidetza gune baten berrantolatzeke proiektua aurkeztu die.

Izan ere, proiektuan izanen diren 30 lekuek gunearen antolaketa hobea ahalbidetuko dute. Auzapezak zehaztu du autoen aparkatzeko lekuetan belarra ateratzen uzten duten harlauzak ezarriko direla.

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari, DSIL eta DETR programetan, baita beste erakunde dituztatzailerei ere.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, aurkeztu zaion autokidetza gunearen berrantolaketa proiektua,

- **Dirulaguntzak ESKATUKO DITU**, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluan DSIL 2023 eta DETR 2023 programetan, baita beste erakunde diruztatzailerei ere.

- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 17an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/01/18an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/18an.